


2008 Autocross-eko Gipuzkoako Txapelketaren araudia



Gipuzkoako Automobilismo Federazioa
Federación Guipuzcoana de Automovilismo

2008 AUTOCROSS-EKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA

2007 AUTOCROSS-EKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA

1. Artikulua Antolaketa:

Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioak ondorengo Autocross-eko txapelketak ezartzen ditu:

- I. Mailako euskal txapelketa
- II. Mailako euskal txapelketa
- III. Mailako euskal txapelketa
- IV. Mailako euskal txapelketa

2. Artikulua Aurkezten direnak:

Txapelketa hauetara gipuzkoako sarbidea izango dute kirolzale haiek guztiak zeinen baimena urte honetarako Automobilgintzako Espainiar Errege Federazioak emana izan baita, Estatu-mailako ala Murriztutako Estatu-mailako modalitatean, Automobilgintzako Euskal Federazioak homologatuta, Lehiakide-baimena bezala.

3. Artikulua Onartutako Ibilgailuak:

Segurtasun neurriak eta Automobilgintzako Euskal Federazioaren araudi teknikoan baimendutako aldaketa teknikoak betetzen dituzten ibilgailu haiek guztiak onartuko dira, ondorengo arauetara jarraiki:

- **I. Maila:** 2 edo 4 gurpil eragile dituzten homologatutako eta homologatu gabeko turismo ibilgailuak, 2.001 cc baino gehiagoko, eta 3.500 cc baino gutxiagoko zilindrada batekin. Eta 2008 autocross-eko Espainiako txapelketari dagokion araudi teknikoan dauden guztiak. E-1 ibilgailuak J eranskinaren 282 eta 283, artikuluei jarraiki eta Autocross-a praktikatzeko eginak, tubular anitzeko xasisa eta salmenta komertzialeko turismo ibilgailu baten itxurarekin, gehieneko 3.500 cc-ko zilindradarekin (ibilgailu gainelikatuentzako 1.7 faktore zuzentzailea barne)

- **II. Maila:** Gainelikatu gabeko 2.000 cc ala gutxiagoko zilindrada duen 2 gurpil eragileko homologatutako ala homologatu gabeko turismo ibilgailuak, diferentzialari dagokionean blokeoa zilegi da, zein 2008 Autocross-eko Espainiako Txapelketaren Araudi Teknikoarekin ados baitaude.

- **III. Maila:** ibilgailu bereziak, lur-zirkuituan abiadurako probetarako bereziki eraikiak eta eginak, 2 edo 4 gurpil eragilekoa eta 4.000 cc ala gutxiagoko zilindradarekin (gainelikatutako ibilgailuentzako 1.7 faktore zuzentzailea barne), zein 2008 Autocross-eko Espainiako Txapelketaren Araudi Teknikoarekin ados baitaude.

- **IV. Maila:** Ibilgailu bereziak, bereziki Autocross-eko probetarako eraikiak eta eginak, 500 cc ala gutxiagoko zilindradarekin, bi aldiko motor bizilindrikoentzat, lau aldiko motor bizilindrikoentzat eta 600 cc, lau zilindro eta lau aldiko motorrentzat. 2008 Autocross-eko Espainiako Txapelketaren Araudi Teknikoaren baldintza berezietara jarraiki, injekzio motorrak onartuak izango dira.

Ibilgailuek estetika-aurkezpen ezin hobea eduki beharko dute. Kirol-Komisarioek probari dagokion partaidetza errefusatu ahal izango dute, lehiaketako ibilgailuarekin bat ez datorren aurkezpena eta irudia duten ibilgailu ahiei guztiei dagokionean.

4. Artikulua Segurtasun-neurriak:

Segurtasun neurriak Autocross-eko Araudi Teknikoan zehazten dira, hala ere lehiaketa hauetan parte hartzeko gutxienezko segurtasun neurriak islatzen ditugu, 2008. urterako FIA arauetara egokituta:

- Gutxienez sei puntuko ainguraketa duten segurtasun-arkuak, ondorengo neurriekin 38 x 2,5 . 40 x 2, 45 x 2,5 eta 50 x 2 mm. puntu anitzeko barrak gomendatzen direlarik.
- FIA araudiari jarraiki, homologatutako arnes erako segurtasun uhalak.
- FIA homologatutako kaskoa (Ikusi homologazioak eta iraupena Urtekarian).
- FIA arauaren arabera lohihurtzeko ignifugoa eta barneko arropa guztiak.
- Kanpoko eta barneko bateria deskonektatzeko gailua.
- Itzaltze-sistema homologatua.
- Gutxienez 4 kiloko itzaltzea, zein motor-gunera proiektatzen baita. DIV I eta II.
- FIA Homologazioaren arabera baquet erako eserlekua (Ikusi Homologazioak urtekarian) DIV I eta II.
- Ur-erradiadorearen muntaketa ez dago baimenduta, DIV II bere jatorrizko tokitik kanpo.
- Maila guztientzat nahitaezkoa, hegalak muntatzea lau gurpiletan.
- Hauts- eta balazta-argiak, ibilgailuaren kanpoaldean egon beharko dute (jatorrizko balaztarenak errespetatzen ez direnean) lurretik 100 eta 150 cm bitarteko distantzia batera, hautsekoak ibilgailua martxan jartzen den une beretik piztuta egon beharko dute.
- Ijetzitako haizetakoa.
- Suteen arkako manpara nahitaezkoa izango da, zeinek motorra eta ibilgailuaren barnearen arteko gunea estaliko baitu. DIV III eta IV.
- Edonolako kanalizazio debekatzen da bai olioari eta bat erregaiari dagokiona, auto-barnean DIV II.

Oharra: probako Kirol-Komisarioek, hauetan parte hartzea debekatu ahal izango diete 2008rako indarrean dauden segurtasun arauak betetzen ez dituzten ibilgailuei.

5. Artikulua Proben garapena.

5.1.1 Egiaztapenak.

Egiaztapen teknikoak burutzerakoan Komisario Teknikariek partaideei antzemandako anomaliak jakinaraziko dizkiete, zein denboraldi osorako baliodun egiaztapen-orrietan idatziko baitira, anomaliak konpontzen ez badira proba horretan ateratzeko baimenik ez izatea ekarri ahal du. Egiaztapenak egin ahal izateko, bai teknikoak eta bai administratiboak, partaideak nahitaez bere ibilgailuekin egiaztatze-parkera bertaratu beharko dute antolatzaileak adierazitako datan eta orduan.

Zirkuituan bertan, ala egiaztatze-tokian, tailer bat eskuragarri izatea gomendatzen da, pilotuek Kirol-Komisarioek eskatutako aldaketak burutu ahal izan ditzaten.

Zilegi izango ez balitz, herriko tailer batekin harremanetan jarri ahal da, pilotuei aukera hau jakinaraziko zaielarik.

Egiaztapenetara finkatutako orduari dagokionean ordu erdirainoko atzerapenarekin bertarutzen diren partaideak, zigortuak izango dira, probari dagokion Araudi Berezian ezarritakori jarraiki, eta lehen aipatutako epetik kanpo aurkezten diren partaideak ez dira onartuak izango.

Kirol-Komisarioek baimendu ahal izango dute, bere irizpideari jarraiki, ibilgailu haien egiaztapena zeinen arduradunak diren lehiakideek bere atzerapena borondatez kanpoko nahitaezko arrazoi batengatik izan dela behar bezala justifikatu baitute.

Teknikoki egiaztatu beharreko elementuak ondorengoak dira:

- Segurtasun neurriak.
- Karrozeriaren itxura.
- Egiaztapen-orria, eskatuko balitz.

Administrazio mailan egiaztatu beharreko elementuak ondorengoak dira:

- Pilotu- eta Lehiakide-baimena
- Nortasun Agiri Nazionala.
- Dagokion epean eginiko inskripzioa

5.1.2 Dokumentazio ofiziala:

Antolatzaileak proba osoan zehar probari dagokion araudi berezia izan beharko du partaideen eskura, Federazio honek behar bezala onartua, hala nola erantzukizun zibileko poliza.

Irteerari ekiteko baimenduen zerrenda iragarki-taulan argitaratu eta erakutsiko da.

Amaierako Sailkapen Ofiziala Federaziora ahalik eta azkarren bidaliko da probari dagozkion garapen-aktekin batera. Irteera-parrillak lehiaketan zehar sortutako dokumentu guztiak bertan erakutsi ahal izateko behar adina zabala den taulan erakutsi beharko dira.

Lasterketaren amaierako parke itxia, ospatutako azkeneko finalari dagozkion emaitzak argitaratu ondoren 20 pasa arte mantendu beharko da, konponketarik nahiz hornidurarik burutu ahal ezin izango delarik, Esklusiorako arriskua izanik.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen denean komisarioek partaideei bere ibilgailuen eskuragarritasuna jakinaraziko diete, erreklamazio-objektu izan diren haiek izan ezik, kasu horretan ibilgailua zigilatu eta Kirol-Komisarioen esanetara jarriko delarik.

5.1.3 Lehiaketa-zenbakiak:

Antolatzaile, Ofizial, Lehiakide, Pilotu, Publikoak orokorrean dituzten zereginak eta Txapelketaren jarraipena errazteko helburuarekin, ibilgailu partaide guztiak denboraldi osoan zehar lehiaketa-zenbaki berdina eramango dute, hauek ondorengo moduan esleituko dira:

- I. Maila:-tik.....bitarteko zenbakiak
- II. Maila:-tik.....bitarteko zenbakiak
- III. Maila:-tik.....bitarteko zenbakiak
- IV. Maila:-tik.....bitarteko zenbakiak
- Maila bakoitzeko lehenengo 5 zenbakiak aurreko txapelketan sailkatutako lehenengo 5 zenbakiak egokituko dira
- Zenbakiak jakinaraziko dira, denboraldiaren hasieran 2006. urteko lehiaketetan parte hartuko zuketena partaideentzat, edo hala izanik ezean lehenengo lasterketan, ondorengo arauari jarraiki:

o Turismo kategoriako ibilgailu partaideek eraman beharko dituzte, **kolore zurizko hiru gune 1. Mailan eta 2. Mailan**, aurreko bi atetan eta bat ibilgailuaren sabaian ondorengo neurriarekin, 50 X 50 cm. Taula horren barnean 50 cm-ko zabalera x 12 cm-ko altuerako gune bat egongo da goialdean nahitaezko publizitatea jartzeko gordeta, bere kasuan antolatzaileak eskuratua. **Zenbakien neurriari dagokionean 28 cm-ko altuera izango dute 5 cm-ko zabalera duen trazu beltz batekin.**

o (Irud. adierazten duen bezala).

Antolatzailearen publizitate-gunea
PUBLIZITATEA

2008 Autocross-eko Gipuzkoako Txapelketaren araudia

o III. Maila eta IV. Mailako eserleku bakarreko kategoriako ibilgailuek eraman beharko dute C.D.I.-ren 205. Artikuluari jarraiki, **hondo zuria suen plaka bat, eserleku bakarrekoaren sabaiaren gainean, 25 cm-ko altuera eta 35 cm-ko zabalera neurriekin.** Zabalera dagokionean, bi kategoria hauetan, lehiakideak gune batzuk mantendu beharko ditu, ibilgailuaren albo bakoitzean antolatzailearen nahitaezko publizitatea jartzeko. **Zenbakiaren / en neurriak 20 cm-ko altuera eta 4 cm-ko zabalera, zeinek trazu beltza baitarama, izango dira.**

o Guneak ala nola esleitutako zenbakiak pintatu egin ahal izango dira (kasu orotan gomendatua), edo bestela itsatsitako material plastikoa izango da.
o Aurreko arauetan adierazitako hondoaren antzeko kolorea duten ibilgailuak, lerro beltz batekin markatuko da, 50 X 50 neurriko taula bat eratuz, lerro honek gutxienez 1 cm-ko zabalera izango du.-

5.2 Entrenamenduak, Finalaurrekoak eta Finala.

Partaideak Lasterketako Zuzendariaren esanetara egongo dira, entrenamenduak hasi baino orde erdi lehenago. Nahitaezko entrenamendu ofizialei dagozkien txandak burutuko dira, 3 Itzuliren iraupenarekin eta gehieneko 6 ibilgailu pista aldi berean, irteera banaka burutuko delarik.

Kirol-Komisarioek justifikatutako borondatez kanpoko arrazoiren batengatik entrenamendu ofizialik burutu ez duen sailkapenerako txandetan ibilgailu baten irteera baimendu ahal izango dute. Txandari dagokion irteeran ibilgailu bat azkeneko postuan balego. Erabaki hori Kirol-Komisarioen eskumen eskusibokoa izango da.

Mailaren arabera entrenamendu ofizialeko txandetako irteera-hurrenkera, Txapelketaren lehenengo proban zozketa bidez burutuko da eta hurrengo probetan Txapelketaren behin-behineko sailkapenari dagokion hurrenkerearen arabera, txandei dagokien irteera-hurrenkera zozketatu egingo delarik.

Gutxienez 20 ibilgailuak entrenamenduak amaituko balituzte, hauek zuzenean finalaurretara pasako dira. Sailkapenerako txandei dagozkien irteera-parrillak entrenamenduetako denboraren arabera ezarriko dira, partaide bakoitzak burututako itzulirik azkarrenean oinarrituz. Maila batean parte hartzeko 5 onartu soilik baleude, goragoko Mailara pasako dira, goragoko kategorietakoek ez punturik nahiz saririk blokeatuko ez dituztelarik, II. Maila IV. arekin izan ezik zein ezin ahal izango baitira elkartu.

I, II eta III. Mailetan lehiatzeko onartutako 15 partaide baino gehiago daudenean, bigarren aukerako B final bat burutuko da, finalaurretako txanda bakoitzeko 4 lehenengoak A finalerako sailkatuko direlarik, A finalerako falta diren 2 partaideak, B finalean irtengo dira, zein finalaurretako txanda bakoitzeko sailkatutako ondorengo 5 hoberenek osatuko baitute.

IV. mailarako, kopurua onartutako 20 partaide baino gehiagokoa izango da, finalaurreko bakoitzeko lehenengo 6ak A finalerako sailkatuz, A finalerako falta diren 2 partaideak, B finaletik irtengo dira, zein finalaurretako txanda bakoitzeko ondorengo 7 sailkatu hoberenek osatuko baitute. Partaide gutxiago baleude, final bakarra ospatuko da, finalaurreko 5 lehenengoak sailkatuko direlarik, IV. Mailan izan ezik zeinetan lehenengo 7ak sailkatuko baitira.

Irteera-parrilla ondoren adierazten den bezala osatuko da: 3 - 2 - 3 - 2 parrilla bakoitzeko gehienez 10 ibilgailurekin, IV. Mailan izan ezik zeinetan 14 izan ahal izango baitira, gutxienez 8 metroko tartearrekin.

Irteera-parrillako lerroen posizioa behar bezala adierazita egon beharko du eta partaideek ongi ikusteko moduan. Probaren garapenak taulan finkatutako eskema jarraituko du.

Bai sailkapenerako txandetan eta bai finalaurretan nahiz finaletan, polerako eskubidez duen gidariak, irteera-lerroari dagokion lehenengo ilaran bere tokia aldatu ahal izango du. Polea duenak ahalmen hau burutuko balu, bigarren postuan dagoen gidariak halaber gainerako postuetako bat hautatu ahal izango du.

Pilotu bat A ala B finaleko irteera-parrillara bertaratu ahal ezingo balitz, bere postua bere ondoren sailkatutako pilotuak beteko du, gainerako sailkatutako pilotuak aurrerantz lekualdatuko direlarik. Parrillaren amaieran libre geratzen den hutsunea ala hutsuneak, lehiatuko den txandarako sailkatutako azkeneko pilotuaren atzetik sailkatu diren pilotuek beteko dituzte eta horrela hurrenez hurren.

Sailkapenerako txandak 4.000 m eta 6.000 m bitarteko distantzia batean burutuko dira, B finalak 3.000 m eta 5.000 m bitartekoan, A finalak 7.000 m eta 10.000 m bitartekoan.

PROBARI DAGOKION GARAPENAREN ESKEMA.

SAILKAPENAK:

<u>A TXANDA</u>			<u>B TXANDA</u>			<u>C TXANDA</u>			<u>D TXANDA</u>		
1	5	9	2	6	10	3	7	11	4	8	12
	13	17		14	18		15	19		16	20
21	25	29	22	26	30	23	27	31	24	28	32
	33	37		34	38		35	39		36	40

FINALAURREKOAK

A FINALAURREKOA

1 A	1 C	2 A
	2 C	3 A
3 C	4 A	4 C
	5 A	5 C

B FINALAURREKOA

1 B	1 D	2 B
	2 D	3 B
3 D	4 B	4 D
	5 B	5 D

FINALAK

B FINALA

5 A	5 B	6 A
	6 B	7 A
7 B	8 A	8 B
	9 A	9 B

A FINALA

1 A	1 B	2 A
	2 B	3 A
3 B	4 A	4 B
	1FB	2FB

(Zenbakiek dagokion finalaurrekoan lortutako postua ordezkatzen dute).

(B finalik ez balego, finaleko 9. eta 10. postuak, bi finalaurretako 5. ak beteko du)

Araudi berezian ezarritako itzuliak burututakoan lasterketa amaitutzat emango da. Une horretan Lasterketako Zuzendariak buruan doan partaideari eta helmuga zeharkatzen duten orori laukizko bandera erakutsiko dio. Ibilgailuek orduan aurreratu gabe dezeleratzeko itzuli bat burutu beharko dute, eskusiorako arriskuarekin, Parte itxiraino. Sailkapenerako, finalaurreko ala finaletako txandei dagozkien sailkapena zirkuituan burututako itzuli-kopuruaren arabera izango da, berdinketaren kasuan, burutu dituen lehenarentzat.

Ez da beharrezkoa izango irteera-bandera hartzea ezta itzuli-kopuru jakin bat burutzea hurrengo txandetarako sailkatzeko ala puntuaketan eragina izateko.

Txanda bat geratuko balitz ondorengo irizpidea jarraituko da:

Burututako itzuli bat ala bi: Txandaren errepikapena.-

Txandaren % 60a: Irteera berria, burututako azkeneko itzuliari dagozkion postuak hartuta, irteera-parrilla berria konfiguratzeko.-

Honi dagokion Amaiera txandaren % 70a

6. Artikulua Ibilbidea:

Autocross-eko lasterketak Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioak behar bezala onartutako zirkuituetan burutuko dira, gutxienez 600 m-ko luzera eta etengabeko gutxieneko 12 m-ko zabalera izan behar dutelarik.

Zirkuitu bakoitzak modu independentean laneko parketarako sarrera bat eta irteera bat izan beharko dute eta aurre-irteera bat zirkuituak duen itzuliaren noranzkoan. Zirkuitu orok hesi babesle bat izan beharko du publikoa eta pistaren artean zeinek behar adina altuera nahiz erresistentzia izango baititu, publikoa gutxienez 4 m-ko distantzia batean egon beharko delarik eta publikoa gutxienez 2 m-ko altuera duen pista baino gorago kokatutako plano batean kokatzea gomendatzen da eta inoiz ez pistaren barnean.

Debekatuta egongo da ureztatzea txanden erdian eta maila bereko finalaurretan, eta beti mailen artean ureztatuko da.

Pistako komisarioen postuetan su-itzalgailu bat eta bandera-sorta bat aurkituko dira, eta irteera nahiz laneko parkean gutxienez bi su-itzaltzaile, era berean suhiltzaileen presentzia gomendatzen da.

Zirkuituak beti gutxienez anbulantzia bat eta garabi bat izango ditu eskuragarri, anbulantzien kopurua bikoia izatea gomendatzen da, zeren proba inola ere ezingo da garatu zirkuituan fisikoki anbulantziarik ez badago, halaber proba ospatzen den tokitik hurbilen dagoen ospilari nahiz mediku-zentroari abisatzea gomendatzen da.

7. Artikulua Pilotuek proban zehar dituzten betebeharrak:

ibilgailuak bere kabuz mugitu beharko dira, horrenbestez debekatuta egongo delarik, ibilaldian zehar ibilgailua bultzatzea. Debekatuta dago, esklusioko arriskuarekin, errepidearen aurkako noranzkoan zirkulatzea. Ibilgailua noranzko horretan egoera arriskutsu batetik aldentzeko soilik mugitu ahal izango da, eta hori probako ofizial baten zaintzapean burutuko da.

Ibilgailu bat partaide berarentzat ala gainerakoentzat geratuta suertatuko balitz, ofizialek segurtasun posizio batean kokatzeko bultza ahal izango dute. Matxura ala istripua gertatzen bada, pilotuak auto-barnea ahalik eta azkarren utzi beharko du.

Erabat debekatuta dago helmuga baino lehenago 100 metro baino gutxiagoko distantzia batean geratzea hala nola helmugaren ondoren, larrialdiko arrazoi batengatik izan ezik. Debekatuta dago pistan gasolina ala olio batetzeari nahiz laguntza jasotzea, esklusiorako arriskua izanik.

Edozein kasutan matxuratutako ibilgailu bat pistara itzultzeko lasterketako zuzendariaren aurretiazko baimenarekin kontaktu beharko du.

Erreklamazio-eskubidea lehiakideei soilik dagokio, ofizialek une orotan ofiziozko jardunean aritu ahal izanik, baita inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denean ere.

8. Artikulua Inskripzioko eskubideak eta sariak:

Inskripzioko eskubideek ezingo dituzte 60 €-ak gainditu, antolatzaileek finkatutako publizitatea onartuz, araudi berezian garbi zehaztuta egongo delarik, ala 120 €-koa publizitate hau onartzen ez bada.

Inskripzioak nahitaez egiaztapenak hasi aurretik gutxienez hiru egun natural lehenago burutu beharko dira, gutun, fax ala organizaziora eginiko telefono deia bidez, ala honek esleitutako baliabidearen bidez.

Autocross-eko Euskal Txapelketarako proba puntuagarri bateko antolatzaileak lau txandetarako ondorengo gutxienerako sariak destinatatu beharko ditu:

0 Euro

Lau mailen artean berdin banatuta, hauei dagokien zenbatekoa probaren araudi berezian azaldu beharko da.

Antolatzaileak ez du sariak entregatzeko obligaziorik mailetakoren batek 4 inskribatutako baino gehiago ez baditu, sari hauek lekualdatzeagatik konpentsazio motaren batengatik ordeztuz. Era berean bi gurpil eragilekoaren III. mailako lehenengo sailkatuari emango zaio gutxienez inskripzioaren zenbatekoa, sari hau sailkapen nagusian lortutakoei dagokionean metagarria izango da.

Proba bat bertan behera geratuko balitz Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioari ahalik eta azkarren jakinarazi beharko zaio.

9. Artikulua Puntuaketak:

Txapelketan puntuatzeko, parte hartutako probetan lortutako emaitza guztiak hartuko dira, puntuak ondorengo moduan banatuko direlarik:

Postua 1. a 2. a 3. a 4. a 5. a 6. a 7. a 8. a 9. a 10.a

Puntuak 20 15 12 10 8 6 4 3 2 1

10. Artikulua Zigorrak:

Kirol-komisarioek ondorengo zigorrak ezarri ahal izango dituzte:

- Amonestazioa.
- Eskudiruzko isuna.
- Denborari dagokion zigorra.
- Kanporaketa.
-

Kirol-Komisarioek denborari dagokion zigorren bat inposatuko balute ondorengo prozedura aplikatuko da:

Lehiakideari eginiko zigorren jakinarazpena C.D.I.-aren xedapenei jarraiki burutuko da, bertan pilotuaren izena eta bere ibilgailuaren zenbakia zehaztuko dira,

Baita denborari dagokion zigorraren iraupena ere.

2008 Autocross-eko Gipuzkoako Txapelketaren araudia

Gertaera bat denborari dagokion penalizazioarekin zigortzen bada, eraginiko pilotuak lasterketan burututako denborari dagokiona, lehenago behin-behineko sailkapen ofizialaren argitaipena jakinaraziko zaio, eraginiko lehiakidearentzat existitzen den apelazio-eskubidea gorde ahal izanik.

Hala ere, hautsi ahal den edonolako penalizazioz gainera, Kirol-komisarioek lasterketa bakoitzaren ondoren Euskal Federazio kirol diziplinako batzordearen aurrean gertaeren garapena jasotzen duen akta bat aurkeztu ahal izango da zeinek ekintza eta inplikaturakoei buruzko dagokion informazioarekin, baimen motaren batekin ala gabe, ireki dadin, hala badagokio, dagokion zigor-espedita.

ZIGORREN LABURPENA:

- Araudiko 3. art. Onartzen ez duen ibilgailu baten inskripzioa:IRTETEKO BAIMENDU GABEA
- Baiodun baimenik ez izatea:IRTETEKO BAIMENDU GABEA
- Inskripzioko eskubideak ez ordaindu izana:IRTETEKO BAIMENDU GABEA
- Txapelketaren Araudi Teknikoarekin bat ez datorren ibilgailua:IRTETEKO BAIMENDU GABEA
- Ibilgailuak probari ez dagokion zenbakia badarama:IRTETEKO BAIMENDU GABEA
- Egiaztapenak aurkezterakoan atzeratzea, 30 minutu baino gutxiago,65 €
- Egiaztapenak aurkezterakoan atzeratzea, 30 minutu baino gutxiago,IRTETEKO BAIMENDU GABEA
- Irteera-parrila aurkezterakoan atzerapena zeinek probaren garapena ala bere atzerapena konprometituko baitu:KANPORAKETA
- Komisarioek jarritako identifikazio-makarik ez azaltzea:KANPORAKETA
- Ibilgailua probari dagokionaren aurkako noranzkoan gidatzea:KANPORAKETA
- zirkuituko markak lekualdatzea ala denbora irabazteko helburuarekin hau moztea:KANPORAKETA
- Kanpoko laguntza jasotzea ala pistan hornidura burutzea:KANPORAKETA
- Ofizialei eginiko erokeria nahiz borbaxetarako edonolako saiakera:KANPORAKETA
- Parke itxiko arauak dagokion arau-haustea:KANPORAKETA
- Ibilgailuen aurkezpenean parte ez hartzea:KIROL KLUBEN IRIZPIDEAREN ARABERAKOA
- Probari dagozkion adierazpen ofizialak aintzat ez hartzea:KIROL KLUBEN IRIZPIDEAREN ARABERAKOA
- Banderen adierazpenak aintzat ez hartzea:KIROL KLUBEN IRIZPIDEAREN ARABERAKOA
- Kirolzaletasunaren aurka doan gidatzea ala portaera:KIROL KLUBEN IRIZPIDEAREN ARABERAKOA
- Txandetan ala finalurrekotan irteera faltsua:10 SEGUNDUKO PENALIZAZIOA
- Finalerako irteera faltsua
- Lehenengo aldia:AMONESTAZIOA
- Bigarren aldia:ESKLUSIOA
- Entrenamendu ofizialak ez burutzea:KIROL KLUBEN IRIZPIDEAREN ARABERA
- Dokumentuak faltsutzeko edonolako saiakera:ESKLUSIOA
- Ados ez dagoen pilotuaren talde pertsonala:IRTETEKO BAIMENDU GABEA
- Pilotuen Brifing-era ez bertaratzeta:KIROL KLUBEN IRIZPIDEAREN ARABERA

11. Artikulua Erreklamazioak:

Erreklamazioak C.D.I.-an xedatutakoari jarraiki aurkeztu beharko dira.

Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio Lasterketako Zuzendariari ala bere Adjuntuari edo hala izan ezik probako Kirol-Komisariotako bati, 1.000 €-ko kausio batekin lagunduta C.D.I.-aren 174. artikuluan ezarritako epetan; kausio horri dagokion dirua erreklamazioaren oinarria onartua izan bada soilik itzuliko da, ala Federazio honetako Kirol Batzordeak hala erabaki duelako. Erreklamazioa oinarririk gabekoa bezala epaituko balitz, entregatutako fidantza bere osotasunean ala hein batean atxiki ahal izango da. Gainera, erreklamazioaren autorea asmo txarrez jarduten duela onartuko balitz, Federazioek probako Kirol-Komisarioek proposatutako C.D.I.-an aurreikusitako penalizaziotako bat inposatu ahal izango dio.

Lehiakide batek egiaztapenei, erreklamazioak direla eta ala aurreikusitako modu eta epeei dagozkion ofiziozko arrazoiengatik ematen duen ezezko orok, lehiaketatik berehala kanporatzea ekarriko du, halaber probako Kirol Komisarioek Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioari, hala balegokio, dagokion diziplina-espeditari buruz informatuz.

Lehiakide guztiek C.D.I.-aren 181. artikuluan jasotzen den apelazio-eskubidea dute. Gidariak beraiei hala nola bere laguntzei, bidariei, eta barri inposatutako isunen arduradunak izango dira, bere jakinarazpenetik hurrengo berrogeita zortzi orduren epean ordaindu behar izanik. Isunen ordainketari dagokion atzerapen orok zigorra ekarri ahal izango du berarekin, gutxienez hauek ordaindu arte. Esklusioko kasuan, berarekin inskripzioeko eskubidearen galera ekarriko du berarekin, eta Batzorde Antolatzailearen eskutan geratuko da.

12. Artikulua IV. Mailako txanden garapena

Kart-Cross sailkapenerako txandei dagokionean, txanda bakoitzeko pistan gehienez 10 ibilgailuraino onartuko dira. Finalurrekotan gehienez 14 ibilgailu pistan. Finalerako gehienez 14 ibilgailu pistan. Parrilla bateko lerroen arteko tartea 4 eta 6 metro bitartekoa izango da 3-2, 3-2, 3-2 eskemari jarraiki, aurre-irteerak duen luzeraren arabera.

13. Artikulua Amaierako Sariak.

Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioko Batzordeak definitu beharrekoa.

Behin-behinekoa

30 Ekaina	Autocross Aia
XX XXX	Autocroos Zizurkil
XX XXX	Autocross Idiazabal
XX XXX	Autocross Ordizia